

# IDEIA - AJIA Deliveries

Gure ideia supermerkatu guztien produktuak biltzen dituen app bat da. Horrela jendeak, nahi dituen produktu guztiak erosi ahalko dituzte eta ordu batzuetan beraien etxeetara helduko zaie haien eskaera.



**1.WEBGUNEA:** Webgune bat izango du enpresa, horretaz aparte mugikorrean **erraztasuna** izateko erosketak egiteko. Webgunean, supermerkatu ezberdinetako produktuak kokatuta egongo dira eta taldekatuta egongo dira, **supermerkatuen** arabera eta **produktuaren** arabera.

Produktu asko **errepikatuta** daudenez, produktu horiek prezio ezberdinak izango dituzte supermerkatuaren arabera eta beherapen ezberdinak ere. Beherapen hauek supermerkatuen berdina izango dira, ondorioz lehia supermerkatuen artean izango da eta guk egingo dugun gauza bakarra salmenta eta banaketa izango da. Nola jakingo ditugu supermerkatuen beherapenak? Astero supermerkatu guztiekin elkartuko gara eta haien asteko beherapenen aurreikuspena eskatuko dugu, webgunean prestatzeko eta programatzeko beherapen horiek.

Guzti hau alde batera utzita webgunea oso **interaktiboa** izango da, webgune asko zailak direlako eta hirugarren adineko pertsonak ez dutelako trebetasunik teknologiarekin. Horregatik, hainbat nagusi ez dituzte webgune edo aplikazio hauek erabiltzen. Beste arazo bat, ordaintzerako orduan **fidatzea** da, eta horretarako ezinbestekoa da **metodo ezberdinak eskaintzea**, pertsona guztiak nahi duten aukerak izateko. **3 metodo** egongo dira: Pay-pal, kreditu-txartela eta jasotzean ordaintzeko. Azken hau oso arraroa da, gehienek ez dute aukera hori, baina guk gehien bat enfokatzen dugu hau esan dugunez hirugarren adineko pertsonentzat, eskuko diru asko daukatelako eta diru fisikoa hobe dutelako ordaintzeko.

**2. Produktuen bilketa:** Eskaeren ondorioz, asteko egun guztietan aterako dira kamioiak biltegitik supermerkatuetara eta egindako eskaeren produktu guztiak hartuko ditu berriro biltegitik eramateko. Kamioien ardurak izango da jarduera hori betetzea. Prozesu hau oso luzea ez izateko eskaerak supermerkatuetara helduko dira ere eta haien biltegitan alde batera utziko dituzte eskaeren produktuak, horrela langileek produktuak hartu eta kamioian bakarrik sartu beharko dituzte.

**3. Produktuen antolaketa:** Egun horretan bertan, biltegian, produktu guztiak sailkatuko dira (produktu motaren arabera). Ondoren eskaera guztiak kutxa ezberdinetan sartuko dira, eta zonaldearen arabera sailkatuko dira eskaera guztiak.

**4. Produktuen banaketa:** Eskaera horiek furgoneta ezberdinetan sartuko dira hurrengo egunean, zonaldearen arabera sailkatuko dira eskaerak furgoneta ezberdinak egongo direlako ere. Azkenean ezin duelako furgoneta bakarra leku guztietan banaketa egin. Furgonetan, sailkapena banatuta egongo da distantziaren arabera.

Azkenik, furgoneta bakoitzean Azkenik, furgoneta bakoitzean **bi pertsona** joango dira **errazago** eta **azkarrago** izateko eskaeraren banaketa. Gainera gidaria ez da egon behar GPS-aren eta zein eskari egin behar den ardurapean, bigarren pertsona hori pentsatu behar du egin behar duen bidaia, orduak, trafikoa...

## **BEHEKALDEAN DAGO ASTEKO PLANA**

## Asteko plana:

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
Eskaerak egin bezeroek	<b>GOIZEAN:</b> Eskaeren produktuak biltegietan hartu <b>ARRATSALDEAN:</b> Biltegian eskaerak prestatu hurrengo egunerako	Banaketa	Eskaerak egin bezeroek	<b>GOIZEAN:</b> Eskaeren produktuak biltegietan hartu <b>ARRATSALDEAN:</b> Biltegian eskaerak prestatu hurrengo egunerako	Banaketa	Jaieguna
<b>GOIZEAN:</b> Eskaeren produktuak biltegietan hartu <b>ARRATSALDEAN:</b> Biltegian eskaerak prestatu hurrengo egunerako	Banaketa	Eskaerak egin bezeroek	<b>GOIZEAN:</b> Eskaeren produktuak biltegietan hartu <b>ARRATSALDEAN:</b> Biltegian eskaerak prestatu hurrengo egunerako	Banaketa	Eskaerak egin bezeroek	Jaieguna
Banaketa	Eskaerak egin bezeroek	<b>GOIZEAN:</b> Eskaeren produktuak biltegietan hartu <b>ARRATSALDEAN:</b> Biltegian eskaerak prestatu hurrengo egunerako	Banaketa	Eskaerak egin bezeroek	<b>GOIZEAN:</b> Eskaeren produktuak biltegietan hartu <b>ARRATSALDEAN:</b> Biltegian eskaerak prestatu hurrengo egunerako	Jaieguna

\*Eskaera bakoitza kolore ezberdinekin dago margotuta.